

Goierri tarra

282. zenbakia

2005eko ekainak 6

Idiazabalgo Goiburu

MUSIKAREN BASERRIA



ANTZIZAR
KIROLAREN UDA 2005

JMA 05

www.antzizar.net
tel. 943 887900

publi^{adit}

ANTZIZAR KIROLDEGIKO
UDA 2005 KANPAINA

Etzara lehor geratuko!
Aurten ekainaren 15etik
aurrera Antzizar
Kiroldegiko bazkideek
ARISTRAIN KIROLGUNEKO
IGERILEKUA erabilgarri.





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Odei Lopez

Seigarren hilabetera
jada iritsiak gera
San Joanetako gogoaz gaude
guztiak sutera
goierritarren artera
ohitura zarra aurrera
manten ditzagun gure ohiturak
guztiak batera.

Euskaldunontzat jakina
hilabetea bikaina
orain mantendu tradizioak
lehen geraden aina
egin daigun ahalegina
inori ez eman mina
bakearekin hasi dadila
hurrengo ekaina.

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424
647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Rufino Iraola
4. **Ingurugiro txokoa:** Udalak eta garapen jasagarria
4. **Errezeta:** Bieira beteak
Aholkua: Iilearen modak eta zainketak
8. **Kate motzean:** Beasaingo Gazte Asanblada
9. **Erreportajea:** Euskara enpresetan
12. **Elkarrizketa:** Arkaitz Carrasco
16. **Elkarrizketa:** Brigada Criminal taldea
20. **Emakumeak:** Emakumeen martxa Beasainen
22. **Garai batean...:** Nolakoa zen Ordizia erdi aroan?
23. **Non zer?**
24. **Debaldeko iragarkiak**
30. **Argazki zaharra**



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro
Europaz kanpo: urtean 36 euro


Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Rufino Iraola

Marinel zaharra badator itzulian

Marinel zaharra badator itzulian bere kaira, bederatzi urteren buruan urrundik atezuan eta talaian egon ondoren. Txalupa betea ote dakar? Oso zaila da marinel zaharra esku hutsik porturatzea; arrantzarako arte handirik ez badu ere, txit saiaturia baita. Bai, txalupa aski betea izango du, eta nahiko aukera bariatua ere bai, nahiz eta ugaritasuna fintasunaren aurkakoa izan daitekeen.

Dena den, txaluparen huts-beteek ez dute kezkatzen gehiegi. "Nondik hasi?, zer eskaini?", hori da benetako ardura. Nolako erosleak ditu marinel zaharrak?, zer bezero mota? Ikertzaile sartu da portuan, denei begira. Bana-banaka aztertu nahi lituzke inurritegian dir-dir dabiltzan aurpegiak. Lehenik, zaharrenengan tinkatu ditu begiak, bera baino zaharragoengana...

GOIERRITARRA. Zu zara nire kaia, eta ni naiz marinel zaharra. Gezurra badihudi ere, bederatzi urte datoz azkenekoz idatzi nuela. Zeinen erraz doan denbora, nire buruko ileak orrazirik zabalenean pasatzen diren baino errazago, gure baitan ajeak baizik utzi gabe.

Zer eskaini ote diezazukedan galdetzen nuen arestian, nolako bezeriarekin egingo ote dudan topo. Berriz ere sarri entzun beharko ote dut: "Txato, ie euske-rea ez tiat tutik'e ententitzen". Ostera ere, "el otro día te ví en el GOIERRITARRA", aditu beharko ote dut, nire adiskide erdaldu-nak argazkian bederen fijatzen direlako? Berririo ere, ezinak erasanda edo denborak aurea hartu didalako, errazkeriara joko ote dut, betiko gairen bat jorratzera? Zenbatek emango dizkidate zorionak?

Zenbatek jausiko dute indiferentzia, ura antosinez bezala, nire letra kuttunen gainera? Zenbatek pasatuko dute orrialdea, izena ikusi orduko? Norbaitek irakurriko ote du, nire izena ikusi duelako bakarrik? Zenbatek baloratuko ote du artikulua bat baloratu behar den gisan: subjektibotasun sanoarekin? Objektibotasunik ez dut eskatzen. Ez da existitzen. Gehienez ere, intersubjektibotasuna. Hain zuzen, ebidentzia intersubjektiboa dago egiatik gertuen. Zenbat aldiz nozitu beharko ote dut inoren zehar-begiratua, nire idatzia haren ideiekin bat ez datorrelako?

Saiatuko al naiz, idazteko txanda datorkidan bakoitzean, gaia ondo aukeratzeko, ondo lantzeko, norentzat ari naizen garbi pentsatzeko eta ipinitako xedera hurbiltzeko, inor mindu gabe neure izaera eta nortasunari eusten...

GOIERRITARRA aldatua ikusten dut azkenaldian, dagokion tokian kokatuago, Goierriko erreliatatea ere aldatu egin baita (eta onerako), euskarazko beste medio batzuei esker. Espero dut orain bederatzi urte baino euskaldunago izatea ere, batez ere bi herri handiak: Beasain eta Ordizia. Anekdotak bat kontatu nahi nuke: gu gaztetan, Beasaina edo Ordiziara joaten ginelarik, pertsona heldua baldin bazen euskaraz egingo genion, baina, geure adin bertsukoa bazen, erdaraz. Izan ere, orduan normalagoa zen helduek euskaraz jakitea. Gaur, zorionez, horrek irauli handia hartu du, eta kasik gazterik gehienek dakite euskaraz. Orduan hori esan izan baligute, ez genuen sinetsi ere egingo. Bidezkora iruditu zait aipatzea, horrenbeste hil-kanpai jotzen den honetan.

**Zenbat aldiz
nozitu beharko
ote dut inoren
zehar-
begiratua, nire
idatzia baren
ideiekin bat ez
datorrelako?**

Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidalai txartel hau helbide honetara: Goierri, Urbialde plaza, 7 behe, Beasain

ZUZENKI

A HOLKULARITZA

Abokatuak

Enpresen asesoria

eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet .net

Hirigoien, 7 LAZKAO

www.zuzenki.net

Udalak eta garapen jasangarria

Nazio Batuen Erakundeak Garapen Jasangarrirako Hezitzeko deklaratu duen 2005-2014 hamarkadaren hasieran gaude. Heziketa bakarrik ikastetxeen lana dela uste du jende gehienak. Ezin da ukatu ikastetxeen ardura bakarra heziketa denik, baina heziketaren ardura ez da bakarrik ikastetxeena. Pertsonak bizitza guztian joaten gara ikasten, nahiz eta eskolara edo unibertsitatara ez joan. Ez dugu bakarrik ikastetxeetan ikasten, ikastekoa nonahi baitago. Institutzioak, enpresak, elkarteak eta norbanakoak ere eragile hezitzaileak dira.

Goierriko udalak Agenda 21en sartuta daudenez, hauek ere ikutzen ditu Nazio Batuen Erakundearen erabakiak. Nola erantzun diezaioke udal batek erronka horri? Nere ustez, aldarrikatu duten ingurumenaren aldeko konpromisoa udaleko politika sektorialetan islatuz, erabakiak hartzeko herritarren partaidetza sustatuz, gardentasunez jokatzuz eta egoera jasangarri baten aldeko kultura eraikitzen joateko ekimenak sustatuz eta gauzatuz.

Udal baten funtzionatzeko eratik ere ikasten da, batzutan komeni ez dena irakasten badute ere. Udal baten ingurumen-politika guztia, berez politika sektorial bat ez dena, batzorde bakar



baten esku dagoenean eta ez batzorde guztien artean erantzuteko banatuta, erakusten du nolako garrantzia ematen zaion gai honi. Udal batek erabaki bat hartu eta herritarrei argi eta garbi azaltzen ez dizkienean horren zergatiak, demokrazia nola ulertzen duen adierazten ari da. Kasu honetan ez al du erakusten demokrazia herritarrek lau urtean behin botoa ematera murrizten dela? Ez ote dute pentsatzen udaletxean herritarrek jakin nahi dutela zergatik hartu duten halako edo bestelako erabakia edo zenbait erabaki hartzen parte hartu nahi dutela? Horrelako jokabideak ikusita demokrazia hori delakoan dago jendea. Gardentasunik eta herritarren partaidetzarik ez badago herriko erabakiak hartzeko garaian, ez da sortzen konfidantzarik agintari eta herritarren artean, eta ondorioz herritarrak ez dira lotuta sentitzen udalak hartzen dituen erabaki askorekin.

Garapen Jasangarriaren helburua munduko herritar guztion oinarritzko beharrak ingurumena kaltetu gabe eta ondorengo belaunaldiei etorkizuna hipotekatu gabe asetzea da, herri bakoitzak xede hori lortzeko ahal duen guztia eginez. Herri mailan, berriz, helburu hori lortzea ez dago udalaren esku bakarrik, herritar guztiek ere lagundu behar dute ahalegin horretan, norbanakoen esparru pribatuan zein herriko komunitate mailan ingurumenarekin arduratsu jokatzuz.

Herriko Agenda 21en garapenak berekin behar du herritarren parte hartzea. Jendea inplikatuago sentitzen da herritarren partaidetzarekin erabakitakoarekin eta errazago egingo du horren alde. Zerbait erabakitzen parte hartzeak, hori betetzen konprometitzeko erantzukizuna eskatzen du. Ez dago Garapen Jasangarriko kalitateko demokrazia elkarrenganako errespetuan elkarbizitzeko era bezala ulertuz, kolektibitateari eragiten dien erabakietan denok parte hartuz eta hortik eratorritako erantzukizunak denok aintzat hartuz.

Joxan Auzmendi

LANDARLAN ELKARTEKO ARGAZKI LEHIAKETAREN EMAITZAK

Maiatzak 20an, Ordiziako Barrena kultur etxean, Goierriko natur ondareen goratzea bilatzen zuten lehiaketako argazkien emanaldiari ekin zitzaion. Lehiaketa honetan, bertako paisaia, fauna, botanika, geologia eta abarrekin lotura zuten hainbat gai jaso eta baloratu ziren, eta besteren artean mezu positiboa, erakargarritasuna, gune edo elementu horien balioa areagotzen zuena. Guztia betikotasunetik kanpo ateratzen zela saiatuz, perspektiba berriak, imajinazioa, konposaketa alternatiboak... bereziki baloratu.

12 sari eman ziren eta argazkiak egutegi bat egitera begira zuzenduak zaudenez, urteko hilabete bakoitzaren bueltan egokitzeari ere aurikusi zen sarien banaketa egiterakoan. Bestalde, gaiaren xedea horren zabala izanik, makroa edo gertuko argazkiak, urrutikoak diren beste argazkiekin elkar uztartu ziren ekilibrio bat bilatu nahian.

Lehenengo bi sariak 300 euro eta 200 euro eta zegozkien garaikurrak jaso zituzten, ondorengo 10 sariak ere 100 euro eta garaikurra izan zituztelarik.

Sailkapena: 1.: Asier Azarola (Urretxu). 2.: Iñigo Alonso (Antzuola). 3.: Antton Etxeberria (Ataun), Asier Azarola (Urretxu), Asier Arrese (Beasain), Patxi Razkin (Ordizia), Mari-bel Zufiaur (Zumarraga), Asier Azarola (Urretxu), Iñaki Mezquita (Alegia), Iosu Perez (Urretxu), Josu Alzelai (Legazpi) eta Iñaki Urkiola (Urretxu).

Jendea inplikatuagoa sentitzen da herritarren partaidetzarekin erabakitakoarekin.

Herri ezberdinetan antolatu da maiatzaren 30etik ekainaren 6ra

Aste berdea 2005 Goierrin

Ingurumenaren nazioarteko egunaren (ekainak 5) inguruko asteen ospatu ohi da Aste Berdea europako herrialde ezberdinetan. Iaztik baita Goierrin ere.

Aste Berde honek ingurumen arazoengatik ingurumen hausnartu, eztabaidatu eta kontzientziatzea du helburu. Ingurumenaren egoera aztertzea, gure bizimoduak, ekoizpena eta kontsumo ereduak, garraio beharrak, etab. ingurumenean nola eragiten duten hausnartu eta gure jarrera eta ohitura aldaketek egoera hau nola hobetu dezaketen ohartarazi nahi da aste honen bidez.

Zein da Goierriko ingurumenaren egoera?

Goierrin, Tokiko Agenda 21 prozesuaren barruan eskualde mailako diagnostiko bat egin da, bertan iraunkortasunaren (gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren) inguruko hainbat daturen bilketa egin da. Goazen ingurumen mailako zenbait datu aztertzeraz:


- Mugikortasuna: Goierrin, autoan egindako joan etorri guztien %87a eskualde barrukoa da. N-1 errepidean egunean ia 40.000 ibilgailu pasatzen dira. 1995-2002 urteen artean, zirkulazio-intentsitatearen %26ko igoera bat eman zen N-1 errepidean.
- 2004ko datuen arabera, etxean erabiltzen den ur kontsumoa 147 litro/egun/bizt.-koa da, hau da, goierritar bako-

tzak egunero 147 litro ur kontsumitzen ditu.

- Hondakinei dagokionez, 2004. urtean goierritar bakoitzak egunean 1.25 kg. hondakin sortu zituen, hauetatik 0.25 kg. hondakin birziklatzen direlarik (gainerakoa zabortegira botatzen da).
- Energia elektrikoaren kontsumoak, 2001-2003

epean %29ko igoera bat izan du Goierrin.

- Goierrin Oria ibaiaren goi-ibarra Garrantzi Komunitarioko Leku moduan izendatu berri da Europako Natura 2000 sarearen barruan. Gune honetan du bere bizilekua Bisoi europarrak, EAE mailan mehatxatuen dagoen haragijaleak.



Hainbat ekitaldi

Goierriko herri ezberdinetan maiatzaren 30etik ekainaren 6ra bitartean hainbat ekitaldi antolatu dira: haurrentzako tailerrak (sendabelarrak, jostailu birziklatuak, etab.), hitzaldiak (nekazaritza ekologikoa, landa garapena eta agenda 21), produktu ekologikoen azoka, Jokulandia parkea, Ingurumena Bertso antzerkia etab. Gure kontsumo-eredua aztertzeke balio duen Azterna Ekologikoa kalkulatzeko aukera egongo da herri guztietan banatuko diren diptikoen bidez. Kalkulatu zuk ere zure aztarna ekologikoa!



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL



KRISTALDEGIR

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

SUKALDEAN

Bieira beteak



Mariaje Bastida
Arrieta jatetxea
Olaberria

Osagaiak:

- Bieirak
- Tipula
- Porrua
- Olioia
- Gatza
- Irin pixka bat
- Cayena piper mina
- Esnea
- Gurin pixka bat
- Ogi birrindua

Lehenengo, bieirak hartu eta barruan daukaten haragia aprobetxatu (gainean izaten duen tela fin hori kenduta). Bieira hori ondo txikitu.

Tipula eta porruak zati txikitan egin eta zartagi batean jarri gorritzen. Piper mina ere bertara bota. Kolorea hartzen duenean, bieira, irina eta esnea bota bertara masa egin arte. Ahal

bada, masak ez du ez fina ez oso lodia izan behar.

Hori guztia egosten utzi minutu batzuetan eta ondoren kanpora atera. Ontzi batean eduki pixka bat hoztu harte.

Amaitzeko, bieiraren oskola egindako masarekin bete. Ogi birrindu pixka bat gainetik bota eta gurina ere bai. Horren ondoren, labean sartu eta gainerrea egin.

Ilearen modak eta zainketak

Ileapaindegintzaren historian miatzen badugu, urteetan zehar izan duen garapena ikus dezakegu. Modak etorri eta joan egiten dira urteekin, baita lehengo modak bueltatu ere.

Gaur egun, estilo askoren nahaste nabarmena dago, pertsona eta adin desberdinetara egokituz, baina, estilo eta gustu pertsonalak ahaztu gabe.

Urtean bi denboraldi daude: udazkena-negua eta udaberria-uda. Frantzia eta Erresuma Batutik etortzen zaizkigu tendentzia nabarmenenak. Tendentzia horietaz gain, azkenean bakoitzak egoki zaiona eta eroso-

en daukana aukeratzen du. Hala ere, une honetan bi denboraldien tendentziak nahasturik daude.

Udaberriari begira zenbait aholku

Ilea zaintzearen kultura gero eta gehiago zabaltzen ari da gure artean. Gorputzaren azalak bezala, ile bakoitzak bere tratamendu pertsonalizatua behar du.

Izan ere, buru larruan erreakzio desberdinak agertzen zaizkigu: kaspia, dermatitisa, gantza... Baina udari begira are gehiago zaindu behar gure ilea, egoera klimatikoa kontuan harturik: U.V.A. izpiak,

klorua, itsasoko urak... lehortu egiten du ilea eta indarra galtzen joaten da. Horregatik, eguzkitan jarri aurretik, ilea babestu egin behar gure gure, azalarekin egiten dugun bezala. Ondoren, ilea hidratatu, lehundu eta berriro egiten da.

Honek ez du esan nahi, ilea udan bakarrik zaindu behar dugunik. Urte osoan ilea osasuntsu izan dezagun ondo hidratatua eta nutritua eduki behar dugu, batez ere, permanentea, kolorea edo metxak dituzten pertsonen ileak.

Ile naturalak ez ditugu ahaztu behar. Hauek ere asko lehortzen baitira eta

AHOLKUA



Mireia Sainz
Kimetz ileapaindegia

hezetasun asko galtzen dute ingurugiroko eragileak gero eta kutsakorragoak direlako.

ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN



“Gazteok elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko lehen pausoa izan da”

Goierriko gazte topaketak antolatu dituzue. Zein zen helburua?

Topaketa hauen helburu nagusiak Goierriko gazteok elkar ezagutzea, esperientziak trukatzeko eta komunikazioa lantzea izan dira.

Nork hartu du parte topaketetan?

Goierriko Gaztetxeek, Gazte Asanbladak eta gazteek hartu dute parte. Herri hauek izan dira partaideak: Ordizia, Zaldibia, Lazkao, Ataun, Idiazabal, Zegama, Ormaiztegi, Zumarraga-Urretxu, Legazpi eta Beasain.

Zer egin duzue topaketetan?

Ostiralean, okupazioaren aspektu legalei buruzko tertulia izan genuen abokatu baten eskutik. Gero afaria eta eguna bukatzeko irudi, musika eta poesiaz osatutako emanaldi bat eta bakarrizketak egin genituen. Larunbat goizean, esperientziak trukatzeko, gaztetxeen arteko mahaingurua, bazkaria eta ondoren jolasak izan genituen (sokotira, aulki jokoak, zaku karrera...). Jarraian *Herri bat gaztetxe bat. Desalojorik ez!* lemapean manifestazioa Beasaingo kaleetan zehar. Gauean kontzertuak egon ziren, eta igandean garbiketara, balorazioa eta bideo emanaldiarekin amaitu genuen.

Non egin dira ekintzak?

Ekintza guztiak Beasaingo Gaztetxean egin dira, baina ar-

durak herri guztien artean banatu dira. Beraz, guztia banatuta egon da.

Zer izan duzue mintzagai topaketetan?

Herri baikoitzaren egoera, esperientziak eta elkarrekin biltzearen beharraz aritu gara.

Balorazio ona egiten al duzue?

Bai, oso positiboa iruditu zaigu. Lehenengo pausoa izan da elkar ezagutzeko eta elkarretaz ikasteko.

Partehartzea ona izan al da?

Partehartzea desberdina izan da, ekintzaren arabera. Herri desberdinetako gazteen partehartzea izan dugu, baina orokorrean ez da guk nahi genuen bezainbestekoa izan.

Nondik sortu zen topaketak egiteko ideia?

Goierriko Gazte Asanbladatik abiatu zen ideia, Goierriko herri desberdinetako gazteak elkar ezagutzeko bide bezela pentsatu zen ideia.

Hurrengo urtean errepikatuko al duzue?

Planteatu ez den zerbait da, baina gauzak nola ateratzen diren ikusita baietz pentsatzen dut.

Goierriko Gazte Asanbladak lanean jarraitu behar duenaren beharra behintzat ikusi dugu eta ildo horretan jarraituko dugu lanean.

IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabekoa

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

ordizia beasain zumarraga arrasate



Euskara indartzeko plana enpresetan

Goierriko lau enpresa handi ari dira Euskara Plana aurrera eramaten euren enpresetan. Orkliko, CAFeko, Irizarreko eta Ampoko lantegietan kezkatuta agertu ziren bertan euskarak zeukan presentziaz. Horrela, lantandak osatu eta enpresan euskara indar-

tzeko lanak egin dituzte. Ekainaren 4an, lau lantegietako langileek esperientziak elkartrukatzeko aukera izango dute Abaltzisketan. Izan ere, urtero bezala, aurtan ere bazkaria antolatu da eta ehun langiletik gora bertaratuko dira topaketa honetan parte hartzera.



TOLOSA

Nafarroa Etorbidea 6 - 2.
Tel. 943 653590/68

AZPEITIA

Iberotarren Plaza, 5 Behea
Tel. 943 813928



Aseguratu orain zure furgoneta Inork ez dizu merkeago eskainiko

Oraingoan, abantaila gehiago eskuratu ahal izango dituzu Furgonetaren aseguru kontratatzean.

Merkatuko preziorik onena eskaintzen dizugu. Zure ekonomia egokitutako hainbat produktu eta prezio dituzu aukeran; gainera, 24 orduko bidaia-laguntza izango duzu urteko 365 egunetan, eta, horiguztia, jakina, betiko kalitate-zerbitzuaren bermearekin.



	Hirugarrenetik aseguru beirak barne	Arrisku oroko aseguru
Citroen Berlingo Combi 2,0 HDI SX	337,76 € 56.199 pta.	829,00 € 137.934 pta.
Mercedes Vito 108 CDI 2,2 Combi	412,85 € 68.692 pta.	1.227,36 € 204.216 pta.
Renault TRAFIC Combi 1,9 DCI	429,76 € 71.506 pta.	1.227,69 € 204.270 pta.
Opel Vivaro 1,9 CDTI Furgon	430,41 € 71.614 pta.	1.267,01 € 210.813 pta.

Prezioa kalkulatzeko 45 urteko gizonetara hartu da eredu gisa, 15 urteko gida-baimena eta %30eko deskontua duena

Goierriko hainbat lantegietan kezkatuta begiratzen zioten enpresan euskarak zeukan presentziari. Hori dela eta, duela urte batzuk, Euskara Planak jarri zituzten abian Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean.

Orkli, Ampo, CAF eta Irizarrek eraman dituzte aurrera plan horiek. Baina, denak ere ez ziren batera hasi lan horretan. Izan ere, Orklik hiru urte daramatza euskara indartzeko lanetan, Ampok sei urte, CAFek hamar urte eta Irizarrek aldziz, zazpi urte.

Euskara planaren helburua euskarak enpresan indarra izatea izan da eta honako ildoetan landu da: irudi korporatiboan, barne harremanetan, idatzizkoan zein ahozkoan; kanpo harremanetan, idatzizkoan zein ahozkoan; eta giza baliabideetan, trebakuntzan, kontratazioan, harrera-protokoloan, etab.

Euskararen alde lanean

Lantegi batek zein besteak lantaldeetan egin du lan euskararen erabilera areagotzeko. Eta lantalde horiek guztiak lortu beharreko helburuak markatu zituzten.

Denek ez dituzte lorpen berdinak izan, baina, aurreapenak nabariak izan dira. Adibide gisa, Orkliko ordezkariak jakitera eman dutenaren arabera, beraien lantegian euskarak gorakada izan du urtez urte ahozko zein idatzizko erabileran. Gainera, datu gisa, langileek jasotzen dituzten telefono deietatik %88 euskaraz erantzuten direla aipatu dute. CAFen ere euskara planari esker euskararen prozesua etengabe elikatzen joan dela adierazi dute bertako ordezkariak. Ampo enpresan ere euskararen indartzea nabaritu da hainbat arlotan. Halaber, adibide gisa, ahozko harremanetan euskararen erabilera %74koa dela frogatu dute.



Duela urte batzuk ere Goierriin egin zen enpresa ezberdinen arteko bazkaria. Urte bartan Ampo enpresari egokitu zitzaion bazkaria eta aisia antolatzea eta Zeraingo Otatza sagardotegian egin zuten otordua.

Bazkariaren aitzakian, esperientziak ekartrukatzeko aukera

Ekainak 4: enpresen arteko bazkaria

Urtero elkartzen dira egun batean Elhuyar Aholkularitzarekin lanean ari diren lau lantegi horietako kideak. Eta aurtengoan ekainaren 4an dute zita.

Orkli lantegiari dagokio aurtengo denentzako plana egitea. Eta bi alternatiba jarri ditu goizerako: eskaintza kulturala eta mendi eskaintza. Ekintza kulturala egitera animatzen diren lantaldeetako kideak Beasainen elkartu eta Igartzako monumentu multzoa bisitatuko dute lehenengo. Horren ondoren, Ezkioko Igartubeiti baserrira joango dira. Mendirako eskaintza onartzen dutenek ordeza, bi ordu eta erdiko ibilaldia egingo dute eta ondoren, gainerakoekin elkartuko dira Abaltzisketan. Bertan egingo dute bazkaria eta Goierriko lau enpresa ezberdinetako 100 langile inguru elkartuko dira.

Esperientziak ekartrukatzeko topaketa bat da eta langileen arteko kohesioaz gain, enpresen arteko harremana handitzea lortzen da egun honetan. Lantaldeetako kideek gainerako enpresetako lantaldeetakoekin egoten dira eta beraien esperientziak eta lorpenak azaltzeko aprobetxatzen dute eguna.

Beraz, euskara planaren ondorioak nabarmenak izan dira urtez urte. Baina hala ere, oraindik badago zer egin euskararen indartze lanean.

Jarraipen fasea

Planaren garapena amaitu ostean, jarraipen faseari

Euskarak lantegian indarra izatea dute helburu eta urte hauetan ahozko erabileran zein idatzizkoan nabaritu da.



2003. urteko abenduaren 4an ekitaldi berezia izan zen Idiazabalgo Ampo kooperatiban. Izan ere, euskara-plana garatzen ari ziren Goierriko lau enpresetako kideak elkartu ziren eta enpresen esperientzia ezagutzera eman zuten. Argazkian, ezkerretik hasita, Orkliko Benito Aiestaran, Ampoko Jesus Urteaga, Irizarko Juan Jesus Anduaga eta CAFeko Tere Amundarain ageri dira. Ondoa, Elbuyar Abolkularitzako ordezkariak Bebeko argazkian, Orkliko lantalde bat bileran.

ekingo diote. Hala ere, Orklik adierazi duenaren arabera, beraiek jarraipen faseari ekin aurretik Hizkuntza Politika lantzeko prozesua egingo dute hilabete hauetan.

Hizkuntza Politika prozesuarekin, enpresan euskararen arloan noraino iritsi nahi duten zehaztuko dutela azpimarratu dute.

Bestalde, Orklikoek aipatu dutenaren arabera, jarraipen fase horrek aholkularitzaren presentzia gutxituz joatea du ezaugarri. Baita euskarak enpresaren kudeaketan txertatzeko pausoak ematea ere – nahiz eta horretarako lehendik ere pauso batzuk eman dituzten–.

Landalteetan antolatuta

Lehen aipatutako lau lantegietan lantaldeetan aritu di-



ra euskara planaren garapena egiten. Ampon adibidez, 7 lan talde antolatu ziren, guztira 68 lagun inguru. Iri-

zarren ere zazpi lantalde aritu dira, 70 langile ingururekin. CAFen 21 talde eta 250 pertsona inguru. Eta Orklin berriz, 6 lantalde eta 30 lagun inguru.

Lantalde horiek bilerak egiten zituzten elkartzeko eta bertan euskararen indartzeaz hitz egiten zuten. Horrela, zenbait gauza gaztelaritik euskarara itzultzen zituzten besteak beste.

Horretaz gain, enpresan erabiltzen ziren hainbat paper euskaraz bidaltzeko es-

kariak eta horrelakoak ere egiten zituzten lantaldeetako kideek hori zegokion kideari. Baina hori guztia, euskaraz zekiten langileek egiten zuten.

Gaztelereaz hitz egiten zuten langileek eta euskara ikasi nahi dutenek ere izan dute zeregina denbora tarte honetan. Izan ere, euskaraz ikasteko klaseak ere antolatu dituzte. Horrela, euskara ez zekiten langileek euskara menderatzen hasteko aukera eduki dute.

Lau lantegietan lantaldeetan aritu dira euskara planaren garapena egiten eta enpresan euskara txertatzen.

Musikaren munduan murgilduta



Arkaitz Carrasco beasaindarrak grabazio-estudioa dauka Idiazabalgo Goiburu baserrian

Eskarmentu handia dauka Arkaitz Carrascok musikaren munduan. Musikaria izateaz gain, horretatik bizi da. Eta Idiazabalgo Goiburu baserria du bizitoki eta lantoki. Diskoak eta maketak grabatzeko estudio bat jarri zuen baserrian

eta dagoeneko jende ugari igaro da bertatik. Euskal Herriko zein kanpoko taldeak etortzen zaizkio bertara eta horretarako prestatuta dauka baserria. Kanpotik datozenentzako logelak dauzka eta diskoa grabatzen duten bitartean, baserrian egiten dute bizia.

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82

d Jauregi
TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

laza LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Grabaketa estudio bat daukazu Idiazabalen. Zein da zure lana?

Gehienbat musika grabaketak egiten ditut, baina posprodukzio pixka bat ere bai. Hasiera batean posprodukzioaren ideia neukan buruan eta estudioa horri bideratuta egin nuen. Baina, musika taldeak deitzen hasi ziren eta grabaketekin jardun naiz orain arte. Beraz, orain grabaketan aritzen naizela esan daiteke.

Diskoak eta maketak grabatzen dituzu hemen. Zein da jarraitu beharreko prozesua?

Normalean, talde batekin harremanetan jartzten zara eta beraien musika entzutea joaten zara lokalera. Abestiak entzun eta gutxi gora-beherako ideia bat egin ondoren, beraiekin hitz egiten da. Izan ere, grabazio bat egitea pentsatzen dute baina gehienek ez dute jakiten nola egin behar den. Prozesua azaltzen diet beraiek grabaketa nola egin behar den jakiteko.

Estudioa etorritakoan, klaketak ateratzen dira lehenengo tempoaren nondik norakoak argitzeko. Ondoren, adibidez rock talde batean, aurreneko grabazioa bateriarena izaten da, bigarrrena baxuarena, hirugarrena gitarrarena eta azkenik ahotsarena. Horren ondoren, soloak eta horrelakoak grabatzen dira. Eta azkenik, masterizazioa eta horrelako lanak egiten dira.

Taldekide guztiek batera grabatzea ez al da normala?

Ez da normala. Batzuk ideia horrekin etortzen dira, baina ezin da. Taldekide guztiek grabazioa batera egiteko eta emaitza ona izateko, maila handia eduki behar da. Hemen horrela grabatzea ez da normala.

Lan handia al dauka disko bat grabatzeak?

Bai, dezente. Hala ere, hori taldearen eta diskoetxearen



Los Angelesen lan egina

Noiz hasi zinen baserri honetan lan hau egiten?

2002an grabatu nuen lehenengo diskoa. Nahiz eta baserria oraindik guztiz bukatu gabe zegoen, grabatzeko prestatuta neukan. Eta Sin Red taldearena izan zen hemen grabatu nuen lehenengo diskoa.

Nolatan hasi zinen horrelako lan batean?

Ia lau urtetan Estatu Batuetan, Los Angelesen, egon nintzen bizitzen. Eta hara soinu ingeneritza ikastera joan nintzen. Gainera, zuzenean eta estudioetan lanean ibili nintzen han eta iada bizia ia finkatuta neukan. Orduan betirako han gelditzea edota hona etortzea pentsatu nuen. Hemengoekin hitz egin nuen eta nire aitak baserri honen berri eman zidan. Eta orduan, Los Angelesekoa utzi eta Goierrira bueltatu nintzen. Baserria erosi nuenean erortzeko zorian zegoen eta hiru urtez bertan aritu naiz lanean, dena behar bezala jartzen.

Estudioko materiala Estatu Batuetatik ekarri zenuen ezta?

Bai handik ekarri nuen hemen baino merkeago zeudelako. Horretaz gain, ez nuen zergarik ordaindu behar izan. Izan ere, nire gauza pertsonalak izango balira bezala ekarri nituen eta han ez nuen zergarik ordaindu eta hemen ere ez.

EEBBetan zertan egiten zenuen lan?

Los Angelesen estudioetan eta zuzeneko kontzertuetan egon nintzen lanean. Nahasketak egiten ezaguna zen batekin egin nuen lan bere laguntzaile bezala. Gizon hau ezaguna zen hainbat grammy irabazitakoa baitzen.

Horretaz gain, asko lan egin nuen han zuzeneko emanaldietan. Hainbat kontzertutan eta klubetan egon naiz lanean. Lan hauek gauetan izaten ziren, eta estudioko lanak aldiz goizetan edo arratsaldetan.


Lanbideari han hartu al zenion eskua?

Ez, hemen hasi nintzen. Hala nola, 14 edo 15 urterekin Anjel Katarinekin lanean hasi nintzen. Zuzenekoetan aritzen nintzen, eta Estatu Batuetara joan arte berarekin lanean aritu nintzen. 18 urterekin joan nintzen kanpora.

Tresneria menderatzea baino zailagoa al da pertsonak menderatzea?

Urteen poderioz ikasten da. Tresnerian gauza bakoitza zer den jakitea baino zailagoa da hori erabiltzen jakitea. Pazientzia handia eduki behar da, batez ere, gauzak ondo ateratzen ez direnean. Izan ere, norbait akatsak egiten ari denean, gogogabetu egiten da eta animoak eman behar dira nahiz eta nik ere gogo handirik ez eduki.

CONTINUO RENACER



'Continuo renacer' musika taldeko kidea

Arkaitz Carrascok gainerako taldeen musika entzuten eta grabatzen pasatzen du denbora. Baina berak musika maite du eta musika taldea ere badu. *Continuo renacer* izena du taldeak. Musika instrumentala egiten dute eta hiru dira taldeko kideak. Javier Gutierrezek gitarra jotzen du, Imanol Aizpuruk bateria eta Arkaitz Carrascok baxua eta teklatura.

Duela denbora gutxi atera dute disko berria eta Idiazabalgo Goiburua baserrian grabatu dute. Zortzi abestik osatzen dute grabaketa.

Diruak asko mugatzen du diskoaren emaitza; diruak denbora ematen du eta denborak soinua gehiago zaintzea.

arabera izaten da gehienetan.

Bestalde, horretan garrantzi handia dauka diruak. Izan ere, diru gutxi daukan talde batek aste batean grabatzen du diskoa eta beste batzuk agian hiru aste pasatzen dituzte grabatzen. Eta aldea handia da. Denbora gehiago dagoenean, soinua gehiago zaintzen da. Aldiz, denbora gutxi baldin bada, emaitza ezberdina izaten da.

Zer da zailena grabaketa batean?

Hori taldearen arabera dago. Talde batzuk ez dira oso musikari onak izaten eta ondorioz, grabazioa oso zaila izaten da. Izan ere, batzuk ez dira sinkronizatuta egoten. Baina, agian gitarren soinua oso zainduta daukate eta nahasketak egiteko oso erraza izaten da.

Beste batzuetan aldiz, alderantziz gertatzen da. Musikari onak izatea baina ekipo ez oso ona edukitzea. Orduan, nahasketak egitea zailagoa izaten da.

Eta errazena?

Niri gehiena nahasketak egitea gustatzen zait. Baina honetan ez dago araurik. Hainbat faktoreen arabera, arabera izaten da.

Talde asko igaro al dira hemendik? Eta nondik etortzen dira?

Bai. Hemengo asko ezagutuko dituzte: Dogma de fe, Sin Red, Potrotaño... Baina kanpoko taldeak ere etor-

tzen dira. Adibidez, Madriletik, Asturiastik eta beste hainbat lekutatik. Orain adibidez, Asturiastik eta Alemaniastik dator talde bat produktorearekin.

Eta kanpokoekin harremana nola lortzen da?

Ba entzundakoarekin asko jokatzeko da. Agian, hemen grabatutako disko bat entzuten du eta gustatu egiten zaio eta nirekin harremanetan jartzen dira. Gero beste askok, hemen egon ondoren, berriz ere errepikatu egiten dute.

Diskoetxearen bidez egiten al da?

Normalean, nahiz eta disko etxe batekin lan egin, grabaketa zein estudiotan egin taldeak erabakitzen du. Halaber, ez da grabazioaren kontua bakarrik. Gero asko begiratzen diote taldea bertan gustura egoteari.

Grabaketa batek ordu askoko lana dauka eta denbora librean gustura egotea garrantzitsua da. Gainera, hemen logelak dauzkate eta kanpotik datozen taldeek hemen egiten dute bizia. Eta esaten dutenaren arabera, leku ederra da eta etxean bezala egoten dira.

Zein da orain arte grabatu duzun diskorik arraroena edo bereziena?

Arraroena bost eta sei urteko haurrentzako abestien disko bat izan da, zerbait pedagogikoa. Bestalde, duela gutxi telefono dei batzuk garbitu nahi zituen bat

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.



Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

IÑAKI ARIN Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

etorri zitzaidan eta oso arraroa egin zitzaidan.

Taldeak produktorea ekartzen badu, produkzio lana bertan egiten al du?

Bai. Talde batzuk produktorea beraiekin ekartzen dute eta orduan lana banatuta egoten da. Adibidez, Sin Red taldeak Carlos Segarra produktorea ekarri zuen berarekin, beraz, Segarrak produktore lana egin zuen eta nik soinu ingeniari lana. **Garestia al da disko bat grabatzea?**

Zenbat da garestia? Horretan asko lagundu duen faktorea teknologia da. Orain, teknologiaren aurrerapenari esker, merkeago ateratzen da.

Talde askok, beraien diruarekin grabatzen dute diskoa, diskoetxeek orain ez dutelako firma jartzen. Eta behin grabazioa amaitu ondoren, grabazioa diskoetxera eramaten dute amaierako emaitza bezala. Lehen hori egitea ia ezinezkoa zen, oso garestia zelako.

Talde normal bati diskoa grabatzea zenbat kostatzen dakioke?

Aste batez lanean aritzea, egunean hamar ordu sartuz, gutxi gora-behera 1.800 euro kostako litzateke.

Aste batean maketa bat grabatzeko denbora badago. Adibidez, pentsatu zortzi abesti grabatu behar direla, ba batera grabatzeko bakarrik egun bat behar da.



Grabaketa estudio gebienak baserrietan eta herritik urruti egoten dira lekua intsonoritzatzeko diru gutxiago gastatu behar delako, lokalak merkeagoak direlako, mendian buelta bat emateko eta lasai egoteko aukera eskaintzen duelako.

Gitarrarentzat beste egun bat. Baxuarekin ere beste horrenbeste. Eta ahotsarekin ere bai. Ondorioz, grabaketarekin iada lau edo bost egun betetzen dira. Eta

amaieran, nahasketak egiteko, gutxienez bi egun behar izaten dira.

Zergatik daude estudio gehienak baserrietan edota herritik kanpo?

Hiru dira arrazoiak. Herrian baldin bazaude, diru asko gastatu behar da intsonorizatzen, izan ere, kanpoko hotsak izugarriak dira. Horretaz gain, herrian gisa honetako etxe edo baserri bat lortzea izugarri garestia da. Eta azkenik, musikariek denbora librean dutenean kalean buelta bat ematea edota mendian ematea ezberdina da. Horrelako lekuetan lasaia egoten dira.

Teknologiari esker, orain talde askok beraien diruarekin grabatzen dute diskoa eta lehen hori ezinezkoa zen.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

TOLARE

URBITARTE



SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**

Gure mandamentuak: Brigada Criminalen disko berria



Alai eta umoretsu aritu dira solasean Brigada Criminal taldeko gazteak. Bakarka grabatu duten lehenengo diskoa da oraingoa eta indarrean daudela nabaritzen zaie. Ilusio handia dute disko berriarekin eta ate asko zabaldu zaizkiela argitu dute Aritz, Iker, Joseba eta

Ai-torrek. Bost urte daramatze elkarrekin musika egiten eta urteetako lanari eta esperientziari esker, musikaren munduan lekua egitea lortu dute.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Bakarkako aurreneko diskoa da orain kaleratu duzuen. Zer nolako sentsazioak dauzkazue?

Sentsazio oso onak dauzkagu. Diskoarekin oso gustura gelditu gara, izan ere, soinua nola gelditu den asko gustatzen zaigu. Guztira hamabi dira grabatu ditugun abestiak eta ia denak berriak dira. Hamabi kantueta-tik bat Frenopatics taldearen bertsio bat da.

Esperientzia aurrekoarekin alderatuta ezberdina izan al da?

Esperientzia antzekoa izan da. Izan ere, aurreko diskoa grabatu genuen leku berean egin ditugu grabaketa lanak eta denbora aldetik ere, berdintsua izan da. Hala ere, oraingoan grabaketako teknikaria Karlos Osinaga izan dugu eta betiere, pertsona ezberdinekin lan egiteak, gauza berriak ikasten laguntzen dizu.

Zein da zuen musika estiloa? Punk eta rock and roll- a batera?

Guk ez diogu etiketarik jar-tzen gure musikari. Atera-tzen zaiguna egiten dugu eta ez dugu ezeren barruan sartzen. Lokalerak etortzen gara eta kantuak egiten jar-tzen gara. Jo dugunak bela-rrira ondo egiten badigu au-rrera jarraitzen dugu, eta bestela alde batera uzten dugu.

Beraz, ateratzen zaiguna punk eta rockaren barruan sartu daiteke baina ez gara horren bila joaten.

Zer adierazten duzue zuen abestietan?

Batez ere sentsazioak eta intuizioak adierazten saia-tzen gara. Oso gutxitan ger-tatzen da zerbait konkre-tuan pentsatu eta horri bu-



ruz idaztea. Gutxi gora-be-hera letra koherente batzuk egiten ditugu eta horiek kri-tikoak izan daitezke batzue-tan eta beste batzuetan ez. Hala ere, oso jakinak diren letrak ez egiten saiatzen ga-ra.

Gai sozialak gehiago lan-tzen dituzue gai politiko-ak baino ezta?

Bai. Euskal Herrian oso iku-sita dago abestiak gai politi-koekin egitea.

Guk ere badaukagu ja-rrera politikoa baina hori kantuetan islatzea oso era-bilita dago jada. Gai berdi-nekin beti bueltaka ibiltzea azkenean aspergarria egiten dela uste dugu.

Zenbat denbora iraun du grabaketak eta non egin duzue?

Grabaketa lanak egiten aste bat pasa dugu. Baina, ho-

Brigada Criminal Lazkaoko taldearen lehen lan luzea kalean

Hiru lazkaotarrek eta bergarar batek osatzen du-te musika taldea. Ahotsa eta gitarra Haritz Artolak egiten ditu (abestietako letrak ere berak idazten ditu), bateria Joseba Arzak jotzen du, baxua Iker Arzak eta gitarra aldiz, Iker Aldanondok.

Stupenda Jones taldearekin batera kaleratu zuten *Brigada Criminal*eko kideek beren lehen diskoa, *Osti bi* izenekoa. Bi grabaketa horiek To-losako Bonberenean egin dituzte eta biak Gor diskoetxearekin atera dituzte. Baina oraingoan Karlos Osinaga aritu zaie teknikari lanetan. Ha-mabi abestik osatzen dute bakarkako diskoa:

- 1-Nire mandamentuak
- 2-Gugandik oso gertu
- 3-Y que todo siga igual
- 4-Euskal eskubia
- 5-Ez nago ero
- 6-Heroia
- 7-Mi ídolo caído
- 8-Gezurretan bizi gara
- 9-Ta hik zer?
- 10-Kaleetan
- 11-Kluban abentura
- 12-Ez dut inoiz hil nahi

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

rrren ondoren, beste aste bat nahasketak egiten aritu gara. Eta diskoa, Tolosako Bonberenean grabatu dugu. **Pentsatzen al zenuten bakarka disko bat grabatzera iritsiko zinetela?**

Oraingoa espero genuen. Izan ere, aurreko diskoa grabatu genuenean, kontratu bat sinatu genuen Gor diskoetxearekin, eta bertan, beste disko bat grabatzeko aukera zegoen. Orain, gaurtik aurrera ez dakigu beste disko bat grabatuko dugun edo ez.

Nola jarri zineten Gor diskoetxearekin harremanetan?

Gure lanaren kopia pila bat egin genituen eta hainbat diskoetxetara bidali genituen. Gor diskoetxekoei gustatu egin zitzaion gure musika eta gure kontzertu bat ikustera etorri ziren.

Horren ondoren, disko bat partekatzeko aukera eskaini ziguten eta orduan Stupenda Jones taldeko ki-deekin disko bat kaleratu genuen.

Hainbat kolaborazio izan dituzue diskoan ezta?

Bai, Frenopatics taldearen bertsio bat jotzea erabaki genuen. Ondorioz, hobere-na kantu horren ahotsa Jon Belastegik, taldeko abeslariak, jartzea zela pentsatu genuen. Bosgarren kantuko letra Xabier Lekuona Captain Nemo taldeko abeslariak egin zuen. Eta zortzigarren abestian aldiz, Olatz Estensorok pianoa sartu zuen.

Orain kontzertu asko izango dituzue.

Bai, orain irailera bitartean kontzertu pilo bat dauzkagu. Lehenengoa Lazkaon egin genuen eta horrekin oso pozik gelditu ginen. Ba-



rakaldon, Tolosan, Orbaitzetan, Lakuntzan, Beasainen, Arrasaten, Gasteizen, Andoainen, Ataunen, Ordizian eta beste hainbat herri-tan emango ditugu kontzertuak. Horiez guztiez gain, oraindik kontzertu gehiago izango ditugula pentsatzen dugu.

Aurreko diskoa grabatu ondoren etorri al zen kontzertu gehiago emateko aukera?

Bai. Lehen guk ibili behar izaten genuen jendeari deika kontzertuak eskatzeko. Orain aldiz, aurreko diskoa atera ondoren, jendeak deitzen digu guri.

Lehen guk ibili behar izaten genuen jendeari deika kontzertuak lortzeko, orain aldiz, beraiek deitzen digute.

Bestalde, irratian ere asko jarri dute aurreko diskoa eta horrek asko laguntzen du.

Kontzertuetan zer ematen duzue?

Disko berriko abestiak jotzen ditugu eta zaharreko batzuk ere bai. Bi edo hiru bertsio ere jo izan ditugu.

Kontzertua guk bakarrik ematen dugunean, ordu beteko saioa egiten dugu gutxi gora-behera. Beste talde batzuekin batera jo behar baldin badugu ordea, denbora gutxiago izaten da, bestela kontzertua oso luzea gelditzen da.

Kataluniatik proposamen bat ere egin dizue ezta?

Bai, guk ekoiztako diskoa Gironako gizon bati bidali zion gure lagun batek. Gizon horrek diskoetxe bat dauka Katalunian eta gustatu egin zitzaion entzundako musika.

Ondorioz, proposamen bat egin zigun: disko hori biniloan ateratzea. 500 kopia egingo ditu eta 100 guri emango dizkigula esan digu. Gainera, bera egingo da gastu guztien kargu eta gu oso pozik gaude. Batez ere, biniloa asko gustatzen zaigulako.

Aurrera begira zer nola-ko asmoak daukazue?

Iraila bitartean kontzertu asko dauzkagu eta horiekin arituko gara. Gero, ikusiko da, baina, agian lasaitasun pixka bat hartuko dugu. Izan ere, denbora luzean beti abesti berdinak jotzeaz ere nekatu egingo gara.

Kontzertuekin bukatu ondoren, abesti berriekin lanean hasiko gara. Nork daki, agian hemendik gutxira beste disko bat kaleratuko dugu.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

“Urteetan zehar gure musika ez da aldatu baina orain abestiak euskaraz kantatzen ditugu”

Noiz hasi zineten elkarrekin musika egiten?

2000. urtean hasi ginen elkarrekin jotzen. *Brigada Criminal* taldea osatu baino lehenago denok beste talde batzuetan jotzen genuen, baina talde horiek utzi egin genituen. Gero, orain gaudenetako bi kide Ormaiztegiko beste bi lagunekin batera hasi ginen elkartzten. Baina, talde baten-tzat bide hori egokia ez zela uste genuen, eta ormaiztegiarrak taldetik joatea hobereena zela pentsatu genuen. Horrela, azkenean, egun gauden lau musikariak elkartu ginen eta oraingo lanarekin oso gustura gaude.

Egun entseguak egiten dituzuen lokal berean jotzen al zenuten hasieran?

Bai. Hasieratik hemen hasi zen *Brigada Criminal*. Hala ere, lokala lortzeko zailtasunak izan genituen urte askotan, baina, Lizarrar-Garaziko unean, Lazkaoko Udalak denari baietz esaten zion eta orduan lokala eskatzeko aprobetxatu genuen.

Non egin zenuten zuen aurreneko kontzertua? Eta nola gogoratzen du-zue?

Santutxun eman genuen



gure aurreneko kontzertua, Sorgintxulo gaztetxean. Nahiz eta aurreneko emanaldia izan, ondo jo genuen eta oroitzapen ona daukagu kontzertu horretaz.

Ezberdina al da hasieran egiten zenuten musika eta egun egiten duzuen?

Musikak berdintsua izaten jarraitzen du. Hasieran egiten genuena eta oraingoa antzekoak dira. Baina, le-

hen gazteleraz kantatzen genuen eta orain aldiz gehienak euskaraz.

Zergatik hasi zineten abestiak euskaraz egiten?

Guk gure artean euskaraz hitz egiten dugu eta jende askok esaten zigun euskaraz abestu beharko genuela. Abestiak gazteleraz nola gelditzen diren asko gustatzen zitzaigun. Baina, Euskaldunon Egunkariaren itxiera gertatu zenean, euskararen aurkako erasoak ikusita, abestiak euskaraz egitea erabaki genuen.

Santutxuko Sorgintxulo gaztetxean eman genuen gure lehenengo kontzertua.



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elbargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Emakumeen martxak Goierrin ere izan du harrera

B easaindik ere igaro da emakumeen munduko martxa. Goierriko eta Urolako emakumeen elkarteek martxa gure eskualdetik igarotzeko eskaera egin zuten, eta eskaera onartua izan zen. Hilaren 26an heldu zen martxa Beasainera eta jende ugari egon zen bertan martxari harrera egiten.

Emakumeen martxa iritsi zen Beasaingo plazara maiatzaren 26an. Aipatu martxa hori, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, abiatu zen Brasilgo Sao Paulotik eta Afrikako Burkina Fason amaituko da urriaren 17an.

Munduan emakumeekiko dagoen bertizkeria eta pobrezia dira martxa hone-tan uxatu nahi dituztenak. Eta hori lortzeko, gutun bat dute martxaren oinarri. *Emakumeen gutun mundiala* gizateriarentzat izena du testigu gisa herrialdez herrialde igarotzen ari den dokumentuak eta bertan, berdintasuna, askatasuna, elkartasuna, justizia eta bakea bezalako baloreak dira oinarri.

Gutun hori munduan zehar giza eskubideak de-

fendatzen dituzten erakunde ezberdinei banatuko zaie.

Herrialdez herrialde dabilen gutuna

Emakumeen martxa 50 herrialde ezberdinetatik igaroko da. Amerikar herrialdea igaro ondoren Europan sartu zen martxa. Turkia-tik barrera Portugalera, Galiziara eta Euskal Herrira gerturatu zen emakumeen eskubideen aldeko martxa.



Herrialde guztiek beren ukitua jarriko dute martxa horretan. Izan ere, munduko leku ezberdinetako emakumeek oihal zati bat ehunduko dute, eta horiekin guztiekin, *Elkartasun mantata* osatuko dute.

Beasaingo emakumeen elkarteak, Asmubek, eta eskualdeko beste elkarte batzuek ere egin dute lana eta mantaren zati bat osatu dute egindako oihalarekin. Martxak Beasainen egin

zuen geldian eman zioten beren oihal zatia martxako kideei.

Distantziak urrundu baina elkartasunak batu

Nahiz eta milaka kilometro banatzen dituen munduko emakumeak, martxa honekin denak elkarrengandik gertu sentitzen dira. Emakumeen eskubideen defentsan mugarik ez dagoela erakutsi nahi dute munduko martxa honekin.



LOGOS
MOBILIARIO — INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak



Emakumeen munduko martxa Beasaingo Loinazko San Martin plazara iritsi zen eta orain arte egindako elkartsaun manta eskuan zutela igo ziren oboltza gainera.



Eguraldi ederra egin zuen martxak Beasainen egin zuen geldialdian eta jende ugari bertaratu zen plazara emakumeei ongi etorria egitea eta ekitaldia ikusiz, goizaz gozatzeraz.



Beasaingo emakumeen elkarteak, Asmube, lanean aritu da elkartsaun mantan beren ukitua jartzeko eta bere obial zatia eman zion emakumeen martxari txalo zaparraden artean.



Obial zati guztiak elkartsaun mantari batzen zaizkio eta goierritarrek emandako obiala gainerakoekin jostea izan zen Beasaingo ekitaldian egin zenaren uneetako bat.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako gi-
da-baimenak**

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Aseguru korreduria



SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behe
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxe: 943 88 91 18
LAZKAO

Nolakoa zen Ordizia Erdi Aroan?

Ordiziaren 750. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi eta ikerketa egin ditu Ordiziako Udalak Eusko Ikaskuntzarekin batera. Eta lan horien barruan, Ordizia Erdi Aroan nolakoa zen argitzeko proiektu bat egiteko eskaera egin zion Ordiziako Udalak Ana Galdosi eta berak egingo du Ordiziako monografia historikoa. Nahiz eta oraindik ez duen amaitu, aurrerapen bat eman du udaletxeko Batzar Aretoan.



Ezkerrean, ertaroko etxeen maketa, Ordiziakoak ere antzekoak zirela uste dute. Eskuinean, Ordiziako Erdi Aroko planoaren irudia, obalatu formakoa.

Nola eratu zen

"XIII. mendean, mendixka baten gainean, etxe elkartu batzuk eraikitzen hasi ziren. Etxe horiek, harresi baten barruan ezarri ziren, eta horrela sortu zen Ordizia". Lehen ez zegoen horrelako ezer, eta aldaketa handia izan zen paisaiarentzat eta inguruko biztanleentzat, proiektuaren egileak azaldu duenez.

Oraindik ez dakite zenbat denbora pasa zuten harresia eraikitzen, ezta etxebizitza horiek egiten ere. Baina, badakite hiribilduak nolako estruktura zuen. Hau da, harresiaren barruko estruktura nolakoa zen.

Estruktura pentsatua

Erdi Aroko hiribilduak ez zituzten "edonola" egiten, barruko estruktura pentsatuta edukitzen zutela argitu du Galdosek eta baita estruktura garaiko pentsaerarekin bat zetorrela ere.

Hiribildua zein lurretan eraiki behar zen "oso kontuan" izaten zuten Erdi Aroan. Lursaila, ahalik eta erre-

gularrena izan behar zuen, eta horren arabera egiten zuten planoak, azaldu du Galdosek.

Ordiziaren kasuan, egun alde zaharrean ikus daitekeen bezala, planoak obalatu itxura zeukala dio. Baina Ordiziakoa ez da forma hori zeukan bakarra. Hiribildu askok izaten omen zuten antzekotasuna forman eta Gasteizkoa ere, obalatu formakoa zela agertu du monografiaren egileak.

Etxeak eta familiak

"Hiribildua etxez osatua zegoen eta etxe horiek guztiak antzekoak ziren hasieran". Denek antzeko neurriak izaten zituzten eta etxe bat besteari atxikita egoten zela gaineratu du Galdosek. Era berean, etxe guztiek baratzea edukitzen zutela nabarmendu du.

Hala ere, dena denborarekin aldatzen joaten da eta garai hartan ere bai. Hiribilduan gero eta biztanle gehiago zeuden eta ondorioz, etxeak pisuz igotzen hasi zirela aipatu du.

Beraz, hori guztia kontuan izanik eta Ordiziako hirigune historikoak 2,4 hektarea dituela jakinik, kalkuluak egin ditu Galdosek bere lanean. Hedaduraren neurriak hartuta, ikerketak egin ditu eta Erdi Aroko Ordizian 120 familia bizi zirela kalkulatu du. Hala ere, datu hori gutxi gora-beherakoa dela jakinarazi du.

Harresiaren ezaugarriak

Harresiari buruz hainbat ikerketa egin dira eta zenbait datu jakin ahal izan dituzte ikerlariek. Nahiz eta gune batzuetan harresiaren arrastorik ez duten aurkitu, zenbait gunetan aztarnak ikusi dituzte. Aztarna horien arabera, harresiak 90 zentimetroko lodiera zuela adie-

razi dute eta gehienez bi metroko altuera. Era berean, harresia kareharriz egindakoa zela ere argitu du Galdosek.

Bestalde, hiribildua harresiarekin inguratua zegoen eta sarbideak eduki behar zituen.

Sarreraren norabideak

Lau sarrera eta irteera zituen Erdi Aroko Ordiziak Galdosen arabera: Frantziako portalea, Garagarzako portalea, Reteneko portalea eta Gaztelako portalea. Sarbide bakoitzak norabide bat zuen oinarri. Frantziakoa iparraldera joateko irteera zen, Garagarzako Urolako bailara joateko, Reteneko Nafarroara joateko eta Gaztelakoa hegoaldera joateko.

Lau sarrera eta irteera zituen Erdi Aroko Ordiziak: Frantziako portalea, Garagarzako portalea, Reteneko portalea eta Gaztelako portalea



kutxa

gizarte ekintza

Ordizia

Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa martxan

XIV. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa antolatu du Ordiziako Argi Berri Elkarteak Ordiziako Udalaren laguntzarekin. Lehiaketa hiru mailatan banatzen da, gaztetxoan maila (13 urte artekoentzat), gazteen maila (14-18 urte artekoentzat) eta helduen maila (1986an edo aurretik jaiotakoentzat).

Era berean aipatzekoa da, gaztetxoan mailan neurria eta doinua libreak izango direla baina gaia ez. "Negua ala uda" izango da gaia. Gazte eta helduen mailetan, ordea, gaia, neurria eta doinua libreak izango dira.

Lanak Ordiziako Argi Berri elkartera bidali behar dira uztailaren 1a baino lehen. Oroigarriak eta dirua izango dira sariak eta irailaren 11an banatuko dira.

Ordizia

Osasuna eta ongizateari buruzko topaketak

"Emakumezkoen menpekotasunak gaira gerturatzeko saioa"

Ordiziako Gizarte Zerbitzuek antolatu dituzte topaketa hauek Kimetz emakume elkartearen lankidetzarekin batera. Beraien arabera, osasuna faktore fisiko, psikologiko, sozial eta ingurumenekoen "baitan" dago. Beraz, osasuna bultzatzea eta hobetzea norberaren baitan dagoela adierazi dute.

Ekainaren 2an egin zuten lehenengo hitzaldia baina oraindik bi egunetako ekitaldiak falta dira. Ekainaren 6an, 16:30ean, bideo foruma eskainiko dute *Amor, curiosidad, prozac y dudas* filmarekin eta ondoren Mariñe Soto pedagogoak hitz egingo du. Hilaren 7an, 17:30ean, elkar laguntza elkarteak izango dira. Alkohol menpekotasunarekin lotutako saioak egingo dira. Bertan, Beatriz Alonso psikologoa egongo da.



Ataun

Otso festa 2005

Ekainak 5, igandea:

Ataungo lehen pintura lehiaketa kalean:

09etatik 11etara: Izen ematea ordu honetan izango da udaletxe aurrean.

10etatik 24etara: Pintura lanen erakusketa egongo da udaletxeko ganbaran.

Pintura lehiaketa honen sari banaketa ekainaren 25ean izango da, 12:00etan Herri Antzokian.

Ataungo bigarren argazkigintzako ralia:

09etatik 10etara: Izen ematea ordu honetan izango da udaletxe aurrean.

Bestalde, argazkigintza lehiaketa honen sari banaketa ere ekainaren 25ean izango da, 12:00etan, Herri Antzokian.

Ekainak 16, osteguna:

15:00etan: Badmintoneko azken partidua Auzoeta kiroldegian.

19:00etan: Teniseko azken partida Auzoetan.

Ekainak 17, ostirala:

22:00etan: Dantza garaikidearen *Bibotzetik* ikuskizuna egingo da Herri Antzokian. Verdini dantza taldeak eta Vaiven produkzioak aurkeztutako ikuskizuna da. Musika, Iñaki Salvadorrek jarriko du eta sarrera 6 eurokoa izango da.



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 lgara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI



zuhaizki

Zurgindegia



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

ETXEBIZITZAK

salgai

Zaldibian etxebizitza bat salgai dago. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongelarekin. Berritua. 156.260 euro. 669827096.

Ordizia erdi-erdian pisu bat salgai dago. Erabat berritua dago eta bi logela ditu. Pisu guztiak kanpoaldera ematen du. 619419811 / 656778222

Atikoa salgai Beasaingo erdigunean. Guztiz berritua dago. 60 m², 2 logela, sukalde amerikar muebleztatua, bainugela eta trastelekua. 144.242,90 euro. 660836723.

Legorretan, etxebizitza berritua salgai, trastalekuarekin eta garajearekin. 660095263.

errentan eman

Conilen (Cadizen) apartamentua alokatzen da. 666502385 (Rakel)

Zarautzen, (erdialdean) etxebizitza alokatzen da, ekainean eta uztailan. 4 logela, oso egoera onean. Hondartzatik 5 minutura. 943014155.

Saloun apartamentua alokatzen da. Uztailako 2. hamabostaldia eta abuztuaren 1. hamabostaldia. 943027417.

Donostian Amara auzoan etxebizitza alokatzen da uztaila eta abuztuan. 2 logela terraza-ekin. 636399403.

Donostian (Antiguon) etxebizitza bat alokatzen da uztailan, abuztuan eta irailean. 2 logela, dena konpondua. Ondarretatik 10 minutura, 943377292 (gauzez deitu, 21:30etatik 22:30etara).

Ordizian etxebizitza bat alokatzen da. 665736062.

Zarautzen, etxebizitza alokatzen da, udarako, astebukaerako, zubietako... Hondartzatik gertu dago. 685718454.

GARAJEAK

salgai

Ordizia erdian garaje itxia saldu edo alokatu egiten da. 630608227.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

salgai

Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut Arkaka eta Intxaustiko iturriaren arteko pistan. Balio pertsonal handikoak dira. 607585117.

BESTELAKOAK

salgai

Fender Stratocaster gitarra mexikarra salai. Kolore naturalekoa. 645713541.

Bikientzako Inglefina markako kotxea salgai. Oso egoera onean. 699107910.

Mustek 600 II N eskaneagailua salgai. 50 euro. 652729563.

Margotzeko eskuko aire pistolatxoa (holding air brush kid) salgai. Behin erabilia. 20 euro. 652729563.

Esku-ohea eta lanpara infragorri salgai. Egoera oso onean eta prezioa ere bai. 610036043.

Peliser errepideko bizikleta salgai, berdea. Shimano RX100 kanbioak, 24 abiadura. 150 euro. 943722898. Ariz.

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

IBILGAILUAK

salgai

Opel Corsa autoa salgai. NA-AZ matrikuladuna. Oso egoera onean. 677851566.

Kia Sportage 4x4 autoa salgai. SS-BG matrikuladuna. 95000 km. 645713541.

WW California salgai. 102 CV, 2.5 TDI. Aire egokitua, 150000 km. Lotarako 4 plaza, sukaldea, frigorifikoa, Nafarroako matrikula. Oso egoera onean. Extra pila bat. 678342873.

Opel corsa 1.4 salgai. SS-AP matrikuladuna. Oso egoera onean. Prezio interesgarria. 605733843.

Seat Leon FR. 1.9TDI 150 zaldi. 33.000 km. 2004. urtekoa. ESP. Alarma. 6CD. Garantia ofiziala. 636211578 (Leire).

Ssang Yong Musso 4x4 salgai. 1998. urtekoa. Oso egoera onean. 943187706 (gauean deitu).

Aprilia SR 50 salgai. dago eta egoera oso onean dago. Interesa dutenek 646535174 telefono zenbakira deitu dezakete.

ANIMALIAK

salgai

Poni emea salgai, urte bete-koa. Hilabete eta erdiko poni arra ere bai. 630035317.

Jadterrier alemaniar arrazako txakurkumeak salgai (basurdeetarako, azerietarako...). Hiru hilabetekoak. 943801806.

Aharia salgai dago, gaztea eta ona. 943885102.

erosi

Artzai txakurra, iletsua hartuko edo erosiko nuke. 679865826.

MUSIKARIAK

eskaerak

Dogma de fe Beasaingo rock taldea baxu-jole baten bila dabil. Konpromezurik gabe deitu eta probatu. Kontzertuak ditugu. 628 15 81 42 (JON)

Goierriko musika talde batek baxu-jolea behar du. Errepertorioarekin. Lehenbait lehen zuzenean jotzeko prest. 609214919 (Aitor).

LANA

eskaerak

Pintorea behar da makina-erremintarako. Esperientziaduna. 615787097.

Zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean lan egiteko. Kontratuarekin. 685782717.

Taberna baterako neska bat behar da, zerbitzari lanetarako. 687609093.

Neska edo emakume bat behar da haur bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 20:00etatik aurrera deitu zenbaki honetara: 943028855.

Zerbitzariak, sukaldariak, garbiketarako jendea, so-korristak eta administrari laguntzaileak behar dira uda partean lan egiteko Goierriko zonaldean. 635752398.

Neska gazte bat behar da kotxeak garbitzen diren Beasaingo leku batean lan egiteko. Interesatuak 943161847ra deitu.

eskaintzak

Ordiziako emakumea eskaintzen da orduka bi egunez etxeko lanak egiteko. 943084046.

Gauetz lan egiteko eskaintzen da pertsona helduekin lan egiteko. 616889923.

Neska bat gauetz lan egiteko eskaintzen da, zerbitzari bezala edota pertsona helduekin egoteko.

Neska euskalduna, administraria, goizez lan egiteko eskaintzen da. 652737157.

20 urteko mutil bat peoi bezala lan egiteko eskaintzen da. Esperientzia dauka eraikuntzan. 678781985.

Emakume bat banaketan edota neska batek laguntzaile bezala egin dezakeen edozein lan egiteko prest dago. 678781985.

Emakume bat pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Autoa daukat mugitzeko. 678781985.

23 urteko neska euskalduna prest dago dendari bezala lan egiteko. 649928356.

Neska eskaintzen da orduka lan egiteko, etxeetan edo ostalaritzan. Esperientziaduna. 617792722.

Edozein lan egiteko prest dago neska bat. Batez ere goizez. 650389586.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com


biok

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

zerbitzuak



psikopedagogia zerbitzuak

Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain



ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA



Ordiziako Urdanetako ikasleak 1974an.

Goian (ezkerretik eskuinera): Mari Sol Lazkanoiturburu, Miren Iraola, Patricia Berakoetxea, M^a Jesus Escudero, Mila Castejon, Begona Satrustegi, Ana Isabel Laguardia, Teresa Bergara, Inmakulada Lazkano, Charo Bartolome eta Nati Garcia.

Erdian: Miren Iraola, Ana Isabel Sarasola, Arrate Garin, Maria Jose Cobos, Mertxe Korta, Amaia Cia, Maria Angeles Cristolbal, Belen Revuelta, Araceli Peñalver, Arantxa Garmendia eta Mari Carmen Iturrioz.

Beheran: Maria Jesus Garcia, Maria Jose Iturrioz, Amparo Ramos, M^a Carmen Garrido, Ramoni Gomez, Eva Azkarrate, M^a Jose Lozano, Ana Riaño, Anantxa Saldaña, M^a Pilar Pazos eta Concepción Calabuig.

GERTU abokatuak



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

ENPRESA ZERBITZUAK

ASEGURUAK

Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Tel.: 943 16 21 92
Faxa. 943 88 36 33
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**



Ikaskide irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuarte
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaro berriak:
 - Mekanografia
 - Word, acces, excel...
 - Internet
 - Ingelera

UDA IKASTAROAK

- Uztaila eta abuztua
- ✓ Errekuperazioak
- ✓ Udako lanak
- ✓ Datorren ikasturterako prestaketa
- ✓ Ingelera
- ✓ Tailerrak: ikasketa teknikak, irakurmena/idazmena, matematika/kalkulua

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Azken azterketak
- ✓ Maila guztiak: LH, DBH, batxilergoa, unibertsitate-maila, moduloak...
- ✓ Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku



ANZIZAR, S. A.




**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak

Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako Sistemak

Erosteke eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu. Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza Elektronikorako sistemak nola aplika ditzakezun azalduko dizugu eta **nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.**

Goierri - Urola Garaia

ekainak 9

ORDIZIA

Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia: 18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioari Foru de Gipuzkoa



Miramon
Enpresa Digitala

Antolatzailea:

eta zuk, nola ikusten duzu?
egunsenti bat edo momentu erromantiko bat?

EGUZKITAKO BETAURREKO
GRADUATUAK

68€

HONDARTZARAKO
TOAILA
BAT
OPARI

MultiOpticas-ekin eguzkia nahi duzun moduan ikus dezakezu

30 eurogatik bakarrik zure gustuko betaurrekoak graduatzen ditugu

MULTIOPTICAS

Eskatza baliagarria, 2005/07/30, momentuan eguzkitako betaurrekoak erosten (6ko kurbak edo txikiagoak. Diametroa: 65 (+) 70 ()).
Eguzkitako lente organiko monofokalak. Astigmatismoa, gehienez 2 dioptria. Gehieneko graduazioa: +/-5 dioptria.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendiñil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

**ANTZIZAR KIROLDEGIKO
UDA 2005 KANPAINA**

Etzara lehor geratuko!

Aurten ekainaren 15etik
aurrera Antzizar
Kiroldetiko bazkideek
ARISTRAIN KIROLGUNEKO
IGERILEKUA erabilgarri.



Antzizar Kiroldetiko
Bazkide txartela baldin
baduzu, etorri eta Aristrain
Kiroldetiko Igerilekuan
sartzeko beharrezkoa den
pegatina emango dizugu

